
Forraje erosketa amankomunerako proiektua abian da!

(2019.06.07)

Lurgintzak, UAGA, Idiazabal J.D., NEIKER eta Transportes Letamendia S.L.-rekin batera forraje erosketa amankomunerako forraje erosketa amankomunerako proiektu pilotu bat abian jarri zuen euskal nekazari eta abeltzainen arteko elkarlanerako sare bat lortzeko. Sare honen helburua bertako forrajeen ekoizpen eta salerosketarako neurriak definitzea da. Izan ere, Jatorri Deituren legeak lehengaiak eremu geografikoaren barruan ekoiztuak izan behar direla ezartzen du eta gaur egun hau ezin da bete.

Honez gain, forrajeen kalitatearen araberako prezioa taula bat landu nahi da, bertako forrajeen hornikuntza bermatzeko.